

## **ZAURIK SENDATZEN**

Bergara (2005.10.11)

Historiaren zehar, eta bereziki azken urte hauetan, jaso ditugun eraso guztiegatik herria zauriz beteta dago. Azken bolada honetan inoiz baino katiatuagoak, umiliatuagoak, beldurrak jota gaude: guztiz makurrarazita. Egoera hori areagotu nahian, Espainiako nazionalisten hurrengo helburua inperialismo bera maitatzea lortzea izango litzateke. Bide horretan, inperialismoak jartzen dituen bide guztiak horretara eramaten dute. Deituriko gure “klase politikoak” egoera politikoa horrelatsu aztertu, eta erantzuna horren arabera eman beharrean, muzin egin, eta zera adieraziko dute: bidea “politika” da, ez dago beste biderik. Horrela, inperialismoak ezarritako bide “baketsuari” normalizazioa deritzote. Hori horrela deta eta, beraien proposamenak integrazioko bidera garamatza. Aitzitik, inperialismoak soinean uzten ari zaizkigun zauriak borrokaren seinaleak, hots, herriaren izatea azaltzen duten ezaugarri nabariak dira. Beraz, Askatasuna tenorez zauriak sendatzeko aukera argi eta garbia da; eta inperialismoa maitatzea, berriz, herriaren heriotza da.

Alperirako diren bide horietan denbora galdu ordez, askatasunera eramango gaituen bidea hartzea hobe dugu. Batak, askatasunaren bide politikoan jartzen gaitu; besteak, iruzurreko bide politikoak, berriz, traiziora eramaten gaituen bidean. Gizateria eta gure herria itotzen ari diren santututako ideia eta biderik ez dugu nahi. Eta, gainera, gure herriak berpizteko arnasa hartzea behar beharrezkoa du. Beti ere, geuk ditugun indarrak eta berauen erabilpenak, borroka horretan zein lekutan jartzen gaituen oso kontutan hartuz. Politikan indarra eta bere erabilpen egokiaz jabetzea, pentsamendu mailan bakarrik bada ere, politika egin nahi badugu, ezinbestekoa da. Zapaltzaileek gerraz ezarritako “bakea-istilua” biolentzia hutsa da. “Bake-istilua” agerian uzteko ere gutxieneko herri indarra behar beharrezkoa dugu. Bakezko akordioa, bakarrik, askatasuna lortuz gero burutu ditzakegu. Askatasuna lortzeko indarra izateaz gain, munduan eta gure inguruan politikoki ondo kokatuta egon behar dugu. Ez dugu gerra maite, ezinbestekoa egiten zaigu ordea. Ezpatapean gaituzten horiek ezpata baino ez dute erabiltzen, eta aurkakoa esaten badute ere, horretan (ezpatan) baino ez dute sinesten.

Herri zapalduok baliabide bakarra dugu: indarra, oraindik, gelditzen bazaigu. Alternatiba bakarra: integrazioa edo askatasuna. Indarra badagoelakoan gaude, herriak existentzia eta existitzeko gogoia baitu. Beraz, askatasunerako bidea jorratu behar dugu. Geure indarrak ondo erabiliz, indarrak metatu behar ditugu, jakin badakigulako geure Estatua errekuperatu, bakarrik, indarrez egin baitaiteke. Eta hori, politikan zerbait funtsezkoa eta garrantzitsua da. Askatasunaren bideak, gogorra bada ere, merezi du. Eskarmentuak zera baieztatzen du: Politika indarrean datzala. Hori horrela izanik, deituriko gure “klase politikoaren” jokaera garbi ikusi eta ulertzen da. Herria saldu dutenentzat politika, berriz, hitz egitea, adostea, akordioak egitea da. Herrikide garenok, ordea, politika zer den azaltzeko eta gezurrezko politika salatzeko herri-konpromizua dugu.

Horrelako azterketa bat egitera ez gaitu inongo berotasunik edo fanatismoerik eraman. Lehen esan dugun bezala, indarra erabiltzeko berezko grinarik ez dugu, egoera interpretatzearen ondorioa baino ez da. Inperialismoaren biolentziaren azken helburua ez da bakarrik herria zapalduta edukitzea, herritasun eta gizatasun osoa kentzea baizik. Alabaina, ahalegin guztiak eginda ere, ez dute oraindik lortu.

Inperialismoari geu egiazki zer garen bost axola zaio. Ukatzen gaitu: ez gara hau, ez hori, ez hura, ez gara ezer. Herri gehienei aitortzen eta duten eskubiderik "sakratuena" ukatzen digute: Askatasuna. Bizimodua ezarri egiten zaigu. Inposaketa ideologikoak badakar berekin, etsaiak gure herriarekiko zabaltzen duen irudi bat. Ideologia horren irudia onartuz gero, inperialismo berak markatzen duen betekizuna burutzen da. Horrela, zapalkuntza ontzat eman dezakete. Lotura hori, ordea, ez da inperialismoaren iturria edo jatorria, inperialismoak lortu duen fruitua baizik. Inperialismoak jauntasun osoa izateko, ez du aski objektiboz hala izatea: bere zilegitasuna ere lortu nahi du, eta herriak horretan sinestarazi behar du. Eta, alderantziz, zilegitasun hori osoa izan dadin, herria objektiboz morroi izatea ez da aski: herriak bere burua halakotzat hartu eta onartu behar du. Hitz batez, herriak onartu egin behar du inperialismoa, hau da, inperialismoaren eta herriaren arteko lotura. Horrela, eta hori nahi du, inperialismoa herriaren erabateko suntsitzailea bihurtzen da.

Inperialismoak zapalkuntza mantentzeko eta areagotzeko, interesatzen zaizkion irudiak bultzatuz, herriari beharrak sortzen dizkio; eta horrek nahita- nahiez herriko jokabide moldatzaileetan eragiten du. Eta nahiz ezarritako bultzada eraginkorra izan, nola jasan jaiotzetik heriotzaraino gidatzen duten eraldatzea? Horrela inperialismoak munduaren eta geure buruaren etorkizunari buruz aukera guztiak kentzen dizkigu. Gure erantzukizuna, ordea, horri aurrea egitea da, geure historiaren ardura hartuz. Gure herriak jasaten duen gabeziarik larriena hau da: historiatik at izatea.

Estatu libreak edo Estatuak duten herriak baino ez dira historiaren jabe. Horietan ere gertatzen da, jakina, bertako biztanleek etsitzea, eta barneko arazoetan parterik ez izatea, bere ekintza hutsaren hurrena dela esatea. Baina eskubidea bederen badutela esaten dute; engainatuak izan direla, baina ez ukatuak. Horiek, momentuko traizio edo demagogiagatik barreiatuak izan badira ere, estatu batekoak dira. Inperialismoaren menpe dagoen herriak, ordea, ukatua da eta ez du inondik ere kondaira egiten; eta, jakina, inperialismoaren zama jasaten du, estatua duten herriak baino larrikiago.

Gure herritasunak ez ote digu eskatzen herrikide bezala betebeharrak batzuk izatea? Inperialismoak gure nazio egiturarik ez onartzean, geure etorkizuna ezin asmatu ez ote gabilta? Inperialismoak okupazioa estaliz, alde guztietatik belaunaldi berriak bere teknika eta irudiaz moldaraziz derrigortzen ditu. Herriak, ordea, bere burua babestu nahirik eman behar dion erantzuna zera da: herri kontzientzia salbaidetean ipini subjektu politikoa bilakatu. Herriak dituen indarrak bere helburuak lortzeko bidean ipini behar ditu, hain zuzen. Herri kontzientzia eraginkorra izan dadin jokabide politikoan bilakatu behar dugu.

Inperialismoak dirauen bitartean ezinezkoa da demokrazia. Horrek inperialismoak daraman kontraesana agerian uzten du. Demokraziak goiz edo berandu inperialismoa hilaraziko du. Beraz, Espainiako eta Frantziako inperioetan ez da demokraziarik obratzen, nahiz eta lau haizeetara horrelakoak zabaldu. Alde batetik, inperialismoaren egoera onartzeak bere barnea usteltzea dakar; eta bestetik, ez onartzeak bere burua ukatzea. Inperialismoaren barnean (hipotetikoki hartuz) zenbait abantaila erreal emango balira ere, inperialismoaren ukazioa litzateke; horrek nolabait inperialismoak ezarritako harremanak nahastera baitakar, hau da, abantailak ezeztatzerako, inperioarekiko erauzteak.

Inperialismoaren arbuioa ezin du absolutua baizik izan; jazarpen edo defentsa hutsa ez da nahikoa izango, beraz. Beraren erabateko gainazpikatzea behar beharrezkotzat jotzen da. Inperialismoaren izate hutsak zanpaketa dakar, eta inperialismoaren suntsipen osoak bakarrik ekar dezake geure Estatua berreskuratzea. Inperialismoak, argi eta garbi, herri eta giza-emakumeen harremanak faltsutzen, erakundeak desegiten eta herrikideak hondatzen eta usteltzen ditu.

Geure herriak bizi ahal izateko inperialismoa ezeztatzea behar beharrezkoa du. Ezeztapen hori geure askatasunaren aurre pausoa baino ez da. Gisa berean, inperialismotik askatzeko zapalkuntza bera joaz abiatu behar dugu, giza talde zapaltzaile horrek dituen indar ahulezietatik hasiz, hain zuzen. Hitz batez, zapaltzaileen pentsamoldeak baztertuz, eta besterik gabe, euren pentsamoldeen barnean geure buruak lehiatzen eta neurtzen ibiltzeari utzi behar diogu.

Zertan bilakatu gaitezke? Geu zapalduok zer gara, bada? Geuk izaera metafisikoetan ez dugu sinesten, ezta aspaldi batean sortutako izaera aldagaitzetan ere. Erabateko aldakuntza geure izaera berrian bildurik, bakarrik, gainontzeko gizon-emakumeak bezalakoxean bihurtu gaitezke. Jakina, dagozkigun geure orbitako zorion eta zorigaitz guztiez; baina azkenik herri, eta geure buruaren jabe.

Horrela bada, geure kontzientziaren sakon-sakonean sartu diguten murrizketatik aske geldituz, geure Estatua eraikitzen has gaitezke. Egiazki askea, ordea, berreskuratutako Estatu demokratikoak herrikidearen askapena itzulezina egiten duen neurrian, bakarrik, lortuko da. Jakin behar dugu, gure estatuaren existentziaren etorkizuna, gure libertatea eta askatasuna, gaur egungo Euskal Herrian jokatzen dela, eta ez Madrilan edo Parisen.

Geuk nahi duguna, ez da inperioen molde edo tankera oneko zerbait, justuki inperio horien heriotza, baizik. Inperialismoa ez da, azaldu nahi diguten, indibiduen arteko harreman eramangarri moduko bat, geure lurraldea konkistatzea eta geure herria zapaltzea baizik; besterik ez. Inperialisten aurka borrokatzen dugunean, ez da bakarrik herriek bere buruaren jabe izateko duten eskubidea onartzea, herritarrekiko dituzten harreman hain arrazista, itxia, alde batekoa apurtzea baizik. Inperialismoak ezarri nahi dituen giza harremanak, beraz, apurtu behar ditugu.



Inperialismoak ipinitako bide politikoak berak ipini dituela ez da inoiz ahaztu behar; eta, noski, bide hori integrazeko bidea da, eta horrek gure herriaren erabateko heriotza ekarriko du.